

## II. BALDINTZAZKO ADITZ-FORMAK

- Ikasiak dituzu dagoeneko indikatiboaren aditz-formarik erabilienak eta baita inperatiboarenak ere. Horrenbestez, noski, euskal aditzaren parterik oinarrikoena ezagutzen duzu.

Oraindik ikasteko dituzun formak honako hauek dira:

- ✓ subjuntibokoak: *etor dadin* 'que venga'; *ekar dezan* 'que lo traiga'
- ✓ ahalezkoak: *etor daiteke* 'puede venir'; *ekar dezake* 'lo puede traer'
- ✓ baldintzazkoak: *etorriko balitz, poztuko ginateke* 'si viniera, nos alegraríamos';  
*ekarriko balu, eskertuko genioke* 'si lo trajera, se lo agradeceríamos'

Ikaskai honetan **baldintzazko** formak ikasiko ditugu.



Una vez estudiadas las formas más usuales del indicativo y del imperativo, conoces ya lo más básico y fundamental del verbo vasco.

Te quodan, pues, albora por estudiar:

- ✓ el subjuntivo: *etor zedin* 'que venga'; *ekar dezan* 'que lo traiga'
- ✓ el potencial: *etor daiteke* 'puede venir'; *ekar dezake* 'lo puede traer'
- ✓ el condicional: *etorriko balitz, poztuko ginateke* 'si viniera, nos alegraríamos';  
*ekarriko balu, eskertuko genioke* 'si lo trajera, se lo agradeceríamos'

En esta lección vamos a estudiar las formas del condicional.

### II.1. NINTZATEKE, NUKE

- Gaztelaniazko *iría, querría, te daría, le gustaría* eta horrelakoak **joango nintzateke, nahi nuke, emango nizueke, gustatuko litzaioke** e.a. esaten dira euskaraz.

Baldintzaren ondorioa adierazten dute forma horiek berez; askotan, ordea, aurreko baldintza hori ez da batera aipatzen :

|                                    |                  |
|------------------------------------|------------------|
| Zapata pare bat nahi nuke, mesedez | (querría ...)    |
| Egingo al zenidake mesede bat?     | (me harías ...?) |

• Forma:

1. Morfemak:

|               |          |   |            |
|---------------|----------|---|------------|
| Iraganaren    | ...-(e)n | ⇒ | ...-(TE)KE |
| 3. pertsonako | Z-...    | ⇒ | L-...      |

2. Hau da, hortaz, paradigma:

| NOR        | NOR-NORK |             |
|------------|----------|-------------|
| NINTZATEKE | NUKE     | NITUZKE     |
| ZINATEKE   | ZENUKE   | ZENITUZKE   |
| LITZATEKE  | LUKE     | LITUZKE     |
| GINATEKE   | GENUKE   | GENITUZKE   |
| ZINATEKETE | ZENUKETE | ZENITUZKETE |
| LIRATEKE   | LUKETE   | LITUZKETE   |

NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK formak ere berdin egiten dira, iraganeko **-(e)n** ⇒ **-ke** bihurtuz eta 3. pertsonako **z-** ⇒ **l-** eginaz:

|          |   |                  |           |   |                   |
|----------|---|------------------|-----------|---|-------------------|
| nion     | ⇒ | <b>nioke</b>     | zenien    | ⇒ | <b>zenieke</b>    |
| zitzaion | ⇒ | <b>litzaioke</b> | zitzaigun | ⇒ | <b>litzaiguke</b> |
| zion     | ⇒ | <b>lioke</b>     | zigun     | ⇒ | <b>liguke</b>     |

3. Aditz nagusiak **-ko** atzikia darama:

|   |                              |
|---|------------------------------|
| Nork <b>egingo</b> luke hori?           | (¿quién haría eso?)          |
| Gustora <b>joango</b> nintzateke Parisa | (a gusto iría a París)       |
| Nori <b>emango</b> zenioke saria?       | (¿a quién darías el premio?) |
| Ez nizuke ezetz <b>esango</b>           | (no te diría que no)         |

**Nahi, behar** eta horrelako modalek atzizkirik gabe hartzen dute sarritan adizki laguntzaile hau:

|                                 |                   |
|---------------------------------|-------------------|
| Etxera joan <b>behar</b> zenuke | (deberías ir...)  |
| Zer <b>nahi</b> zenukete?       | (¿qué querriáis?) |

• Erabilera :

Gauzak kortesiaz esateko edo nolabait leuntzeko erabiltzen dira askotan forma hauek. Desioak ere horrela adierazten dira maiz :

Adibidez: ➡

|                   |   |                            |                                   |
|-------------------|---|----------------------------|-----------------------------------|
| Etorri behar duzu | - | <b>Etorri behar zenuke</b> | (tienes que... - tendrías que...) |
| Zer nahi duzu?    | - | <b>Zer nahi zenuke?</b>    | (¿qué quieres? - ¿qué querrías?)  |
| Lagunduko didazu? | - | <b>Lagunduko zenidake?</b> | (¿me ayudarás?- ¿me ayudarías?)   |
| Kafea hartuko dut | - | <b>Kafea hartuko nuke</b>  | (tomaré... - tomaría...)          |

## ARIKETAK

1. *Ipini ondoko esaldiak era leunago batean -ke motako aditza erabiliz.*

Adibidez:

Mesede bat egingo didazu?

➡ Mesede bat egingo zenidake?

1. Bakarrik egon nahi dut pixka batean.
2. Zer nahi duzue afaltzeko?
3. Gutun honen bidez herriko lagun guztiak agurtu nahi ditut.
4. Etxe berria erosi nahi dugu, baina ez dugu dirurik.
5. Eskerrak eman nahi dizkiegu lagundu diguten guztiei.
6. Isilik egoten ere ikasi behar duzu, neska.
7. Horrelako gauzak ez dituzu denen aurrean esan behar.
8. Hiri barruan polikiago ibili behar duzue.
9. Badakit lasaiago bizi behar dudala, baina...
10. Galtzen ez dakienari ez zaio jolasten utzi behar.
11. Nori emango diozu lehen saria?
12. Eguraldi honekin zinera joango naiz.
13. Dutxa beroa hartzeak mesede egingo dizu.
14. Edozer gauza egingo du horrek nahi duena lortzeko.
15. Egun bat jan gabe egoteak ez dizu kalte egingo.
16. Zigor handia merezi du horrela dabilenak.
17. Pozik hartuko dugu geure etxean.
18. Nigatik, bihar bertan jubilatuko naiz.
19. Zenbat emango didazu auto horregatik?
20. Utziko didazu diru pixka bat?

2. Bete itzazu hutsuneak **-ke** formako aditza ipiniz:

1. Etsairik handienari ere ez ... nik horrelakorik egingo.
2. Zintzoa da hori; munduko diru guztiagatik ere ez ... gezurrik esango.
3. Niri ez ... batere gustatuko itsasoan lan egitea.
4. Zuekin noranahi joango ... gu.
5. Adizu, zenbatean salduko ... (niri) koadro hori?
6. Edozer gauza emango ... gurasoek, haurra etxean ikusteagatik.
7. Nik ez ... edozeini utziko auto berria.
8. Lagunik handienari ere ez ... lagunduko horrek.
9. Gaixorik egonda ere ez ... hori lanera joan gabe geratuko.
10. Porteria libre utzita ere ez ... horrek golik egingo.
11. Adizue, zer nahi ... gaur afaltzeko?
12. *Eurodisney* -ra joango ... haurrak gustora aurtengo oporretan.
13. Zuri ere ez ... kalterik egingo atsedean pixka bat hartzeak.
14. Bihar eguraldi ona izango dugula esango ... nik.
15. Ondo ez bazaude, hobe ... etxean geratzea.
16. Adizu, Nerea, etorriko al ... nirekin zinera?
17. Lana aurkitzeko, aurrena ofizioaren bat ikasi beharko ... (zuk)
18. Gauza pare bat esango ... nik horri!
19. Ez ... inori utzi behar bulegoan erretzen.
20. Kafea hartuko ... esan du.

---

3. Euskaratu :

1. ¿Qué harías ahora?
2. Yo iría al cine, pero a mi amigo no le gusta.
3. Yo me quedaría tranquilamente en casa.
4. Deberías dejar de fumar (erretzeari utzi).
5. No deberías decir esas cosas.
6. Yo no abriría la puerta a nadie.
7. ¿Me darías agua, por favor?
8. Te daría muy a gusto, pero a mí también se me ha acabado.
9. ¿Me harías un favor?
10. No deberíamos hacerle caso.
11. ¿No me dejaríais entrar?
12. Yo solo me comería toda la tarta.
13. Harían cualquier cosa por ganar el partido.
14. Le elegiríamos a él, pero es demasiado joven.
15. No deberíais hablar tanto.
16. ¿Qué os gustaría para cenar?
17. ¿Me harías un favor?
18. Tomaría una cerveza.
19. ¿A quién llevarías contigo?
20. Lo dejaría todo por ir con vosotros.

## II. 2. BANINTZ, BANU

- Aurreko kapituluan ikasi ditugun aditz-formek baldintza hipotetikoa edo irreala izaten dute maiz aurretik (si tuvieras, si hubieras tenido):

|  |                         |
|--|-------------------------|
| Gazteago <i>banintz</i> , ariketa gehiago egingo nuke                  | (si fuera ...)          |
| Denbora librea <i>banu</i> , musika ikasiko nuke                       | (si tuviera ...)        |
| <i>Saiatuko bazina</i> , erraz aprobaturiko zenuke kurtsoa             | (si te esforzaras ...)  |
| Aspirina <i>hartuko balu</i> , berehala pasatuko litzaioke buruko mina | (si tomaras ...)        |
| Garaiz <i>etorri balitz</i> , dena ikusiko zuen                        | (si hubiera venido ...) |
| Gehiago <i>jan izan balu</i> , ez zen orain goseak egongo              | (si hubiera comido ...) |

### • Forma:

#### 1. Morfemak:

**BA • [IRAGANA ...-(e)n kenduta]**

3. pertsonako Z-... → L-

#### 2. Hau da, hortaz, paradigma:

| NOR             | NOR-NORK        |                    |
|-----------------|-----------------|--------------------|
| <b>BANINTZ</b>  | <b>BANU</b>     | <b>BANITU</b>      |
| <b>BAZINA</b>   | <b>BAZENU</b>   | <b>BAZENITU</b>    |
| <b>BALITZ</b>   | <b>BALU</b>     | <b>BALITU</b>      |
| <b>BAGINA</b>   | <b>BAGENU</b>   | <b>BAGENITU</b>    |
| <b>BAZINATE</b> | <b>BAZENUTE</b> | <b>BAZENITUZTE</b> |
| <b>BALIRA</b>   | <b>BALUTE</b>   | <b>BALITUZTE</b>   |

Eta gainerako formak ere berdin egiten dira, iraganeko **-(e)n** kenduta eta 3. pertsonako **z-** → **l-** eginaz:

|          |   |                  |           |   |                   |
|----------|---|------------------|-----------|---|-------------------|
| nion     | → | <b>banio</b>     | zenien    | → | <b>bazenie</b>    |
| zintudan | → | <b>bazintut</b>  | ninduen   | → | <b>banindu</b>    |
| zitzaion | → | <b>balitzaio</b> | zitzaigun | → | <b>balitzaigu</b> |
| zion     | → | <b>balio</b>     | zigun     | → | <b>baligu</b>     |
| nengoen  | → | <b>banengo</b>   | zeterren  | → | <b>baletor</b>    |
| nekien   | → | <b>baneki</b>    | zeraman   | → | <b>balerama</b>   |
| e. a.    |   |                  |           |   |                   |

• Erabilera :

Baldintza hau bi modutan erabil daiteke eta erabilera horietako ba-koitzak bere egitura dauka.

- a. Orainera edo gerora begira dagoenean, *baldintza hipotetikoa* eratzen da,

**...-KO BANU   ⇒   -KO NUKE**

Adibidez:

⇒ etorriko balitz, ikusiko luke (si viniera, lo vería)

Edo:

**BEHAR/NAHI BANU   ⇒   -KO NUKE**

Adibidez: ⇒

behar bazenu, emango nizuke (si necesitaras, te lo daría)

- b. Iraganera begiratzen duenean, berriz, *baldintza irreal*a osatzen da eta gertatu ez den zerbait adierazten du.:

**PARTIZIPIO (izan) BANU   ⇒   -KO NUEN**

Adibidez:

⇒ Etorri balitz, ikusiko zuen  
(si hubiera venido, lo habría visto)

Edo:

**BEHAR/NAHI (izan) BANU   ⇒   -KO NUEN**

Adibidez: ⇒

Dirua behar izan banu, eskatuko nizun  
(si hubiera necesitado... te habría pedido)

### Oharrak:

- a. Badakizu baldintza hipotetiko eta irreal hauetaz aparte, beste baldintza klase bat ere badela, hau da, baldintza errela: **(baldin) ba + indikatiboa**.

*Nahi baduzu* , joango naiz (si quieres ...)  
*Etortzen bazara* , afaria emango dizut (si vienes ...)

Ikus baldintza horren eta hipotetikoaren arteko diferentzia :

*Nahi bazenu* , joango nintzateke (si quisieras ...)  
*Etorriko bazina* , afaria emango nizuke (si vinieras ...)

- b. Gogoratu, bestalde, baldintza egiteko beste modu batzuk ere badaudela :

**-ez gero:** eginez gero;      **-t(z)ekotan:** egitekotan;      **-t(z)era:** egitera

### Adibidez:

*Nahi izanez gero*, erraz irabaziko luke (de quererlo... ganaría)  
*Ondo erabiltzekotan*, utziko nizuke autoa (de tratarlo bien... te lo dejaría)  
*Lehenago jakitera*, esango nizun (de haberlo sabido... te lo habría dicho)

## ARIKETAK

1. Alda itzazu ondoko esaldiak, baldintza erreal hipotetikoa bihurtuz:

Adibidez:      Saiatzen bazara, lortuko duzu (si te esfuerzas, lo lograrás)  
                    Saiatuko bazina, lortuko zenuke (si te esforzaras, lo lograrías)

1. Garaiz joaten bazara, leku ona hartuko duzu.
2. Goizago jaikitzen bada, lan gehiago egingo du.
3. Eguraldi ona egiten badu, mendira joango gara.
4. Parisa joaten bazarete, ez etorri Eiffel dorrea ikusi gabe.
5. Nire laguna ikusten baduzu, esan nigana etortzeko.
6. Zerbait behar baduzue, eskatu lasai.
7. Argazki bat egiten badizut, ez zara haserretuko, ezta?
8. Dirua eskatzen badit, ez diot emango.
9. Ezagutzen bazaitu, ez dizu sartzen utziko.
10. Arretaz egiten badituzte lanak, seiatarako libre izango dira.
11. Tea hartzen baduzu, on egingo dizu.
12. Gazteekin ibiltzen bazara, ez duzu umorea galduko.
13. Gezurra esaten badiozue, okerrago izango da.

14. Gaitza garaiz harrapatu badiote, sendatuko da.
15. Egia esaten badiet, ez didate sinestuko.
16. Mueble berriak erosten baditut, dirurik gabe geratuko naiz.
17. Loteria tokatzen bazaigu, Ameriketara joango gara.
18. Maite banauzu, lagunduko didazu.
19. Laguntzen badidazue, bukatuko dut karrera.
20. Ikusten badut, emango diot zure enkargua.

2. Amaitu ondoko esaldiak, baldintza irrealari nahi duzun ondorioa ipiniz:

Adibidez: Etorri bazina, *ederki ibiliko zinen*  
Egia esan balu, *ez ginen haserretuko*

1. Partidua irabazi bagenu, .....
2. Lehenago iritsi bazinate, .....
3. Hobetu jokatu izan balute, .....
4. Frantzian jaio izan bagina, .....
5. Medikuari kasu egin balio, .....
6. Egunkaria irakurri bazenu, .....
7. Garbiagoa izan bazina,.....
8. Agur egin bazenidate, .....
9. Bostak arte itxoin bazenigu, .....
10. Lagunek lagundu ez balidate, .....
11. Berarekin irteteko eskatu balizu, .....?
12. Komun guztiak itxita egon balira, .....
13. Azken autobusa huts egin bazenu, .....
14. Madonnaren kontzertura joan bazina, .....
15. Kartera gure etxean galdu balitzaizu, .....
16. Korrientean egon ez bazina,.....
17. Koadroa itsusia zela esan banio, .....
18. Janari gehiago jarri izan banu, .....
19. Kalean geundela euria hasi balu, .....
20. Euritakoa ekarri bazenute,.....

3. Har ezazu parentesi barruko aukeretan egokiena:

- |   |                                       |
|---|---------------------------------------|
| 1. Hain lotsati ez ... , lagun gehiago izango lituzke       | (bada, balitz, balu, bagina)          |
| 2. Hainbeste lan ... ez bazenu, lasaiago biziko zinateke    | (egin, egiteko, eginda, egingo)       |
| 3. Atzo ... bazina, perretxiko mordoa hartuko zenuen        | (joan, joango, joaten joateko)        |
| 4. Medikuei kasu egin bazenie, berehala sendatuko ...       | (zara, zinen, zinateke, zinela)       |
| 5. Garbiago hitz egin bazenu, berehala ulertuko ...         | (nizun, nion, nien, nizuke )          |
| 6. Frantzian jaio bagina, frantsesak ... ginen              | (izan, izango, izaten, izateko)       |
| 7. Gezurretan ibili ez ... , dena sinestuko genien          | (balitz, bagina, balira, badira)      |
| 8. Gehiago ikasiko ... , erraz aprobaturiko zenuke kurtsoa  | (balu, bagenu, bazenu, balute)        |
| 9. Polikiago ... balitz, ez zuen istripurik izango          | (ibili, ibiliko, ibiltzen, ibiltzeko) |
| 10. Beste bi urte ... izan balitz, ehun urtera iritsiko zen | (bizi, biziko, bizitzen, bizitzeko)   |



- |   |   |
|---|---|
| 11. Egunero ... balira, garbiago ibiliko lirateke       | (dutxatu, dutxatuko, dutxa, dutxatzeko) |
| 12. Batere bururik ... , ez litzateke horrelako ibiliko | (bazuen, balitu, bazituen, balu)        |
| 13. Ezer ... ez balu, ez zuten gartzelan sartuko        | (egin, egingo, egiten, egiteko)         |
| 14. Lehenago eskatu ... , utziko nizun autoa            | (bazenio, bazenit, balio, bagenio)      |
| 15. Gola sartu izan ... , partidua irabaziko zuten      | (balu, bazuten, bazintu, balitu)        |

4. Aldatu ondoko esaldietako baldintza, **-(e)z gero** ipiniz .

Adibidez: Gutxiago jango balu, hobeto egongo litzateke  
 ➔ Gutxiago janez gero , hobeto egongo litzateke

1. Polikiago joan balitz, ez zuen haur hura harrapatuko.
2. Ezkonduko bazina, ez zinateke horren bakarrik biziko.
3. Irabaziko balu, ontzat emango luke urte osoko nekea.
4. Nahi izan bazenu, zuri emango nizun lan hori.
5. Behar banu, joango nintzateke medikuarenera.
6. Ahal bagenu, egingo genituzke aurten ere oporrak.
7. Pixka batean itxoin balute, hartuko nituen.
8. Merkeagoak balira, erosiko nituzke.
9. Ofizioa ikasiko balu, pozik izango litzateke.
10. Aspirina hartuko bazenu, sendatuko zinateke.

5. Euskaratu:

1. Si te hubiera hecho caso, no me habría pasado nada.
2. Si supieras cómo ando, vendrías a buscarme en seguida.
3. ¿Qué harías si fueras rico?
4. Si hubiéramos tenido un poco de suerte, habríamos llegado a la cima.
5. Si tuvieras posibilidad (*modua*) de elegir, ¿a dónde irías en vacaciones?
6. Si hubieran salido antes, ya habrían llegado.
7. Si lo hubiera sabido, habría venido antes.
8. Si me ayudarais, os lo agradecería.
9. Si no hablarais tanto, sería mejor.
10. Si hiciera frío, nos quedaríamos en casa.

